



ATETZ

UDALA - AYUNTAMIENTO
31867 ERITZEGOITI - ERICE
(NAFARROA - NAVARRA)

EUSKARA HUTSEZKO UDALEKUETARA JOAN DIREN HAUR ETA GAZTEENDAKO DIRULAGUNTZAK: OINARRIAK

1. Oinarrien xedea. Oinarri hauen xedea da euskara hutsezko udalekuetara joaten diren haur eta gazteendako dirulaguntza deialdia arautzea.

2. Dirulaguntzaren gaiak. Deialdi honek 2024. urteko udan egingen diren eta honako ezaugarri hauek dituzten udalekuak hartuko ditu kontuan:

- a) Haur edo gazteei zuzendutako euskara hutsezko udalekuak izatea.
- b) Udalekuak 5 egun baino gehiago eta 15 egun baino gutxiago irautea eta udako oporren garaian eskaintzea (ekainaren 15etik irailaren 30era bitarte).

Deialdi honetatik kanpo geldituko dira honako hauek:

- a) Txango eta bidaiak.
- b) Barnetegi erregimena eskatzen ez duten kirol campusak.
- c) Barnetegi erregimena eskatzen ez duten hiri-udalekuak edo udaleku irekiak.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa. Xede hauetarako, guztira, 1.000,00 euro erabiliko dira, Atezko Udaleko 2024ko ekitaldiko aurrekontuetako Udalekuetarako dirulaguntzak kontu-sailean jasotako kredituaren kontura. Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleitura duen organoak. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

Aurrekontuetan aurreikusitako gehieneko diru-esleipena garaiz eta behar bezala aurkezten diren eta deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskabideen artean hainbanatuko da, baldin eta laguntzen guztizko zenbatekoak horretarako gordetako esleipen ekonomikoa gainditzen badu.

Haur/gazte bakoitzak udaleku bakarrarengatik jaso ahal izanen du dirulaguntza.

Dirulaguntza gehienez gastuaren %50koa izanen da.

4. Deialdiaren publizitatea. Deialdi hau aditzera emateko, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean zehaztutakoa beteko da eta jakinarazpena igorriko zaie dirulaguntzaren hartzaile diren balizko onuradunei. Horretaz gain, deialdiaren testu osoa Atezko Udaleko webgunean argitaratuko da (www.atez.es)

5. Eskabideak aurkezteko epea. Eskabideak aurkezteko epea 2024ko ekainaren 17tik irailaren 30era bitartekoa izanen da. Epea egun horretan eguerdiko 15:00etan bukatuko da.

Neba-arrebak direnen kasuan, amak/aitak/tutoreak eskaera bat egin beharko du senide bakoitzeko.

6. Aurkeztu beharreko dokumentazioa. Deialdi honetako dirulaguntza eskuratzeko eskabidea udalekura joan den haur edo gaztea ordezkatzeko duen aita/ama/tutoreak egin beharko du, eranskinean azaltzen den eredia baliatuz.

Eskabidearekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- a) Udalekura joan den haurra edo gaztea ordezkatzeko duen aita/ama/tutorearen NANaren fotokopia.
- b) Udalekura joan denaren erroldatze-agiria (antzinatasuna adierazi beharko da ezinbestean).
- c) Udalekuari buruzko ezaugarriak (iraupena, hizkuntza, egitaraua) biltzen dituen dokumentua —entitate antolatzaileak izenpetua— edo publizitaterako erabili den euskarria.
- d) Udalekura antolatu duen entitateak izenpeturiko asistentzia egiaztatzea.
- e) Eskatzaileak udalekuaren gastu osoa ordaindu izanaren ordainagiria(k).

Dokumentazioa Atezko Udalean aurkeztu behar da, Eritzegoitin.

7. Eskatzaileek zein udalekuek bete beharreko baldintzak. Honako baldintza hauek betetzen dituztenek eskatzen ahal dituzte dirulaguntzak (baldintzak eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira):

- a) Lehen Hezkuntzako edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikaslea izatea.
- b) Atezko Udalean erroldatuta egotea gutxienez dirulaguntza eskatzen den data baino urtebete lehenagotik.
- c) Udal horiekiko zerga betebeharrak ordainduta izatea.

8. Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea. Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten bada, hamar egun izanen ditu eskatzaileak akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo

agiriak osatu ez badira, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

9. Ebazpena. Deialdi honetako dirulaguntzak esleitzeko ebazpena Atezko Udaleko alkatesak emanen du.

Ebazpen hori interesdun guztiei jakinaraziko zaie. Esleipen ebazpenean nori eman zaion dirulaguntza zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla.

10. Bateragarritasuna. Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko zein pribatuk helburu berberaz emandakoekin, betiere gehiegizko finantzaketarik gertatzen ez bada.

11. Dirulaguntzak itzultzea. Onuradunek dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli beharko dute ondotik azaltzen direnak gertatzen direnean:

- a) Dirulaguntza eskuratzea horretarako eskatzen diren baldintzak bete gabe, onuradunari egozten ahal zaizkion arrazoiengatik.
- b) Eskatzen diren agiriak ez aurkeztea horretarako ezarritako epean.
- c) Bateriaezinak diren dirulaguntzak aldi berean jasotzea.
- d) Nahitaez onartu behar diren egiaztapenak ez onartzea edo oztopatzea.

12. Arau-hauste eta zehapenak. Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorrak aginduko dute. Zehapen prozedura Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen V. tituluan ezarritakoa izanen da.

13. Datuen babesa. Eskatzaileen datuak Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera tratatuko dira. Eskatzaileek ematen dituzten datuak Atezko Udalak kudeatzen dituen datu pertsonalen fitxategietan sartuko dira. Betiere helburua izango da dirulaguntzen deialdi hau eta horrekin zerikusia duen beste edozein administrazio espediente kudeatzea.

14. Ordezko arauak. Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea aplikatuko dira.

15. Errekurtsoak. Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen aurka eta haiek betearazteko hartzen diren ebazpenen aurka ere, errekurtso hauetako edozein aurkezten ahalko da, aukeran:

- a) Berraztertzeko errekurtsua, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori.

Eritzegoiti, 2024ko ekainak 14



ATETZ

UDALA - AYUNTAMIENTO
31867 ERITZEGOITI - ERICE
(NAFARROA - NAVARRA)

EUSKARA HUTSEZKO UDALEKUETARA JOAN DIREN HAUR ETA GAZTEENDAKO DIRULAGUNTZAK: ESKABIDEA

Eskatzailearen datuak (haur edo gaztearen ama/aita/tutorea):

- ✓ Izen-abizenak:
- ✓ NAN:
- ✓ Helbidea:
- ✓ Posta kodea:
- ✓ Herria:
- ✓ Telefonoa:
- ✓ E-posta:
- ✓ Kontu korrontearen zenbakia:

Udalekuari buruzko datuak:

- ✓ Joan den haur edo gaztearen izen-abizenak:
- ✓ Entitate antolatzailea:
- ✓ Datak:
- ✓ Matrikularen zenbatekoa:

euro

Data eta sinadura



ATETZ
UDALA - AYUNTAMIENTO
31867 ERITZEGOITI - ERICE
(NAFARROA - NAVARRA)

**EUSKARA HUTSEZKO UDALEKUETARA JOAN DIREN HAUR ETA
GAZTEENDAKO DIRULAGUNTZAK: ZINPEKO AITORPENA**

Eskatzaileak hau aitortzen du:

☐ Ez dagoela sartuta dirulaguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan.

☐ Laguntza eskabide honetaz landa ez duela helburu bererako beste laguntzarik eskatu edo jaso, beste inongo erakunde publiko nahiz pribatuk emana.

☐ Dirulaguntza eskatu diela beheko erakunde hauei:

ERAKUNDEA	ZENBATEKOA	EGOERA (Ebatzi gabe, ebatzita baina kobratu gabe edo kobratuta)

☐ Helburu bererako edozein erakunde publiko nahiz pribaturi dirulaguntza eskabiderik eginez gero, Atezko Udalari jakinarazteko konpromisoa hartzen duela bere gain.

Eta, hala ager dadin, izenpetu egiten du.

(Data eta sinadura)